

EHULKU

Galderak nola egin



EHULKUra iritsitako galdera bat duzu honako hau:

- Zenbait hiztegitan begiratuta, gaztelaniazko AJUAR terminoaren hainbat ordain aurkitu ditut, baina bakar bat ere ez zait egoki iruditu arkeologiaren arloan erabiltzeko. AJUAR hitza, arkeologiaren arloan erabiltzen da ehorzketarekin batera agertzen diren armek, bitxiek, zeramika piezek eta etxeko elementuek, eta abarrek osatzen duten multzoa izendatzeko. Nola adierazi behar dugu hori euskaraz? Hona adibide bat:
 - “El ajuar encontrado en las excavaciones realizadas está compuesto por diversas piezas de cerámica, utensilios de cocina...”



Errepara diezaiogun galdera egiteko moduari:

- ◆ Galdegileak ‘ajuar’ hitzaren ordaina nahi du:
 - “Nola emango genuke euskaraz gaztelerazko AJUAR terminoa, arkeologiaren testuinguruan?”
- ◆ Galdegileak jakintza-arloa zehaztu du:
 - “arkeologia”
- ◆ Gainera, zer adierazi nahi duen azaldu digu:
 - “ehorzketaekin batera agertzen diren armek, bitxiak, zeramika piezek eta etxeko elementuek, eta abarrek osatzen duten multzoa”
- ◆ Adibide bat ere eskaini digu:
 - “El ajuar encontrado en las excavaciones realizadas está compuesto por diversas piezas de cerámica, utensilios de cocina...”



Hona hemen erantzuna:

Aurkitu dugun ordainik egokiena “ostilamendu” da.



Beraz, galdera egiteko:

- Egin galdera, zehatz-mehatz.
- Terminoak edo esapideak galdetzen badira, eman definizioak.
- Beste hizkuntzetan nola erabiltzen den jakinez gero, ipini hori ere.
- Testuingurua eman: adibide pare bat edo.

